

EGUEN SANTUA ARRATSALDEKO MEZA JAUNAREN AFARIAN

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok:

Eguen Santuko arratsalde honetan batu gara Jaunaren Afariko Meza ospatzeko. Jesusek, gaurkoa lako egun batean eta heriotza gertu ebalako jakinda, adiskideak batu eta Pazko judua ospatu gura izan eban, afari honetan, bere atzetik jarraitu gura dogunon bizitzak zelakoa izan behar dauan erakusteko: zerbitzu apal eta doakoan adierazoten dan maitasunak suspertutako bizitza.

Afari berean, Jesusek Abadetza eratu eban, ogi honetatik jaten eta kopa honetatik edaten dan bakotxean bere heriotza hots egin daiten Bera itzuli arte.

Jesusek, bere duintasunari uko egiten deusola eta bere burua emoten deuskula adierazoteko, kapa erantzi eta oinak garbitu eutsezan bere ikasleai. Hortik aurrera, Eukaristia ospatzea gizakiaren zerbitzuan eta anaia-arreben alde jokatzeko da.

Mezu bikaina eta arrazoi ederrak Eguen Santu hau bizitzeko. Abestuz eta zutunik ekingo deusagu ospakizunari.

JUEVES SANTO MISA VESPERTINA DE LA CENA DEL SEÑOR

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos:

Nos reunimos esta tarde del Jueves Santo para celebrar la Misa de la Cena del Señor. Jesús, en un día como este, sabiendo cercana su muerte, quiso reunirse con sus amigos para celebrar la Pascua judía, y para mostrarnos, en esta cena, cómo ha de ser la vida de quienes queremos seguirle: vida animada por un amor que se expresa en el servicio humilde y gratuito.

En esta misma Cena, Jesús instituye el Sacerdocio, para que cada vez que se coma de este pan y se beba de esta copa, se anuncie su muerte hasta que Él vuelva.

Jesusek bere duintasunari uko egiten deusola eta bere burua emoten deuskula adierazoteko, kapa erantzi eta oinak garbitu eutsezan bere ikasleai. Hortik aurrera, Eukaristia ospatzea gizakiaren zerbitzuan eta anaia-arreben alde jokatzeko da.

Inmenso mensaje y hermosos motivos para vivir este día del Jueves Santo. Unidos en el canto y puestos de pie iniciamos la celebración.

Urtero, Israel herriak askapenaren jaia oroitzen dau eta Jainkoari eskerrak emoten deutzaz Bera dagoalako bere historiaren bihotzean. Entzun daigun barrero kontaketa ha eta bere mezua **lehenengo irakurgai**an.

Itxaropenez eta ohikunez beterik dago Israelgo herriak Egipton ospatutako azken afaria.

LEHENENGO IRAKURGAIA URTEERA LIBURUTIK 12,1-8. 11-14

Egun hareetan, honan berba egin eutsen Jaunak Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hil hau izango dozue hil nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren alkarte osoari: «Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko dau, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia nahiko ez bada, aldameneko bizilagunekaz alkartuko da, bakoitzak jan daikanean arabera zenbat lagun behar dan kontuan harturik. Aberea akats bakoa izango da, arra, urtekoa, artxoa nahiz aumea. Hilaren hamalaura arte gordeko dozue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar alkarteko guztiek hilgo dabe. Gero, odola hartu eta jango dozuen etxeko atearen zutoin biak eta ateburua odolez igurtziko dozuez. Gau horretan, sutan errea jango dozue haragia, legamin bako ogiz eta bedar mingotsez lagundurik.

Honan jango dozue: gerrira loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango dozue, Jaunaren Pazkoa da-eta, hau da, Jaunaren igarotea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emongo deutset Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango dozue ezaugarri zagozen etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naz; holan, Nik egiptoarrak jotean, izurriak ez zaitue zuek hondatuko.

Egun hau gogoangarri izango dozue eta jai nagusiz ospatuko dozue Jaunaren ohorez. Jai honen ospakizuna betiko lege izango dozue belanez belaun».

Cada año Israel hace memoria de la fiesta de la liberación y da gracias a Dios porque Él está en medio de su historia. Volvemos a escuchar aquel relato y su mensaje en la **primera lectura**.

Itxaropenez eta erritualismoz beterik dago Israelgo herriak Egipton ospatutako azken afaria.

LECTURA DEL LIBRO DEL ÉXODO 12,1-8. 11-14

En aquellos días, dijo el Señor a Moisés y a Aarón en tierra de Egipto:

- Este mes será para vosotros el principal de los meses; será para vosotros el primer mes del año. Decid a toda la asamblea de los hijos de Israel: “El diez de este mes cada uno procurará un animal para su familia, uno por casa. Si la familia es demasiado pequeña para comérselo, que se junte con el vecino más próximo a su casa, hasta completar el número de personas; y cada uno comerá su parte hasta terminarlo.

Será un animal sin defecto, macho, de un año; lo escogeréis entre los corderos o los cabritos. Lo guardaréis hasta el día catorce del mes y toda la asamblea de los hijos de Israel lo matará al atardecer”. Tomaréis la sangre y rociaréis las dos jambas y el dintel de la casa donde lo comáis. Esa noche comeréis la carne, asada a fuego, y comeréis panes sin fermentar y hierbas amargas. Y lo comeréis así: la cintura ceñida, las sandalias en los pies, un bastón en la mano; y os lo comeréis a toda prisa, porque es la Pascua, el Paso del Señor.

Yo pasaré esta noche por la tierra de Egipto y heriré a todos los primogénitos de la tierra de Egipto, desde los hombres hasta los ganados, y me tomaré justicia de todos los dioses de Egipto. Yo, el Señor.

La sangre será vuestra señal en las casas donde habitáis. Cuando yo vea la sangre, pasaré de largo ante vosotros, y no habrá entre vosotros plaga exterminadora, cuando yo hiera a la tierra de Egipto.

Este será un día memorable para vosotros; en él celebraréis fiesta en honor del Señor. De generación en generación, como ley perpetua lo festejaréis.

Palabra de Dios.

SAL 115, 12-13. 15-16bc. 17-18



R/. Zu-re ka-li- zak bat gai-tu e- gin Je-su- kris-to- ren o- do- la- re-kin.



R/. El ca-liz que ben-de - ci - mos es la co-mu-



nión de la san_gre de Cris - to.



¿Cómo pagaré al Señor
todo el **bien** que me ha **hecho**?
Alzaré la **copa** de la salvación,
invocando su **nombre**. R.

Mucho le **cuesta** al Señor
la **muerte** de sus **fieles**.
Señor, yo **soy** tu **siervo**,
hijo **de** tu esclava;
rompiste **mis** cadenas. R.

Te ofreceré un sacrificio de **alabanza**,
invocando tu **nombre**, Señor.
Cumpliré al Señor mis **votos**
en presencia de **todo el pueblo**. R.

Bigarren irakurgaian, Paulo apostoluak Jaunaren Afariaren adiera laburtzen dau, Jesusengandik berarengandik datorren ohitura dala esanez. Gaur barrero ospatu eta biziko dogu.

Jesusek bere burua eskeintzen dau gizadiaren salbamenerako.

SAN PAULO APOSTOLUAK KORINTOARREI EGINDAKO LEHENENGO GUTUNETIK - I KO II, 23-26

Senideok:

Jaunagandik hartu neban nik, neure aldetik zuei emon deusuedan hau: Jesus jaunak, saldu eben gauean, ogia hartu eta, esker oneko otoitza eginez, zatitu ebal eta esan: «Hau nire gorputza da, zuentzat emoten dana. Egizue hau nire oroigarri».

Afal ondoan gauza bera egin eban kalizagaz, esanez: «Kaliza hau itun barria da, nire odolaz ezarria; egizue hau, edaten dozuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten dozuen bakoitzean, Jaunaren heriotzea iragarten dozue, Bera etorri arte.

Jaunak esana.

En la **segunda lectura**, el apóstol Pablo sintetiza el sentido de la Cena del Señor, diciendo que es una tradición que procede del mismo Jesús. Hoy la volvemos a celebrar y revivir.

Jesusek bere burua eskeintzen dau gizadiaren salbamenerako.

LECTURA DE LA PRIMERA CARTA DEL APÓSTOL SAN PABLO A LOS CORINTIOS II,23-26

Hermanos:

Yo he recibido una tradición, que procede del Señor y que a mi vez os he transmitido: que el Señor Jesús, en la noche en que iba a ser entregado, tomó pan y, pronunciando la Acción de Gracias, lo partió y dijo:

- Esto es mi cuerpo, que se entrega por vosotros. Haced esto en memoria mía.

Lo mismo hizo con el cáliz, después de cenar, diciendo:

- Este cáliz es la nueva alianza en mi sangre; haced esto cada vez que lo bebáis, en memoria mía.

Por eso, cada vez que coméis de este pan y bebéis del cáliz, proclamáis la muerte del Señor, hasta que vuelva.

Palabra de Dios



Al-kar mai-te da-gi - gu- la, Zuk mai- ta-tu be- ze - la.

Jaunak dirausku agindu barri hauxe emoten deuskula: Berak maitatu gaituan legez alakar maitatu daigula.

Os doy un mandamiento nuevo, dice el Señor: que os améis unos a otros como yo os he amado.

✠ JESU KRISTOREN EBANGELIOA SAN JUANEN LIBURUTIK 13,1-15

Pazko-jaia gainean zan. Jesusek, jakinik mundu hau itzi eta Aitagana joateko ordua heldu jakona, munduan ziran beretarrak maite izanik, azkenean bete-betea maitatu zituan.

Afaltzen ziharduen. Ordurako deabruak sartu eutsan buruan Simon Iskarioteraren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, jakinik Aitak dana bere esku jarri eutsala, Jainkoagandik etorri zala eta Jainkoagana joiala, jagi zan mahaitik, erantzi eban soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu eban; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi jaken, eta gerrian eban eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedrogana heldu zanean, honek esan eutsan:

- Jauna, Zuk niri oinak garbitu?

Jesusek erantzun eutsan:

- Nik egiten dihardudana zuk ez dozu orain ulertzen; geroago ulertuko dozu.

Pedrok barriro:

- Zuk ez deustazu sekula niri oinik garbituko.

Jesusek erantzun:

- Garbitzen ez bazaitut, ez dozu Nigaz zerikusirik izango.

Simon Pedrok esan eutsan:

- Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere.

Jesusek erantzun eutsan:

- Garbitua hartu dauanak ez dau oinak baino garbitu beharrik, guztiz garbi dago-eta; eta zuek garbi zagoze, baina ez guztiok.

Izan ere, baekian nork salduko eban; horregaitik esan eban: «Ez zagoze guztiok garbi».

Oinak garbitu eutsezanean, soingainekoa jantzi, barriro mahaian jesarri eta esan eutsen:

- Ulertzen dozue egin deutsuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen deustazue, eta ondo deitu ere, halantxe naz-eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua nazan honek, zuei oinak garbitu badeutsuedaz, zuek ere alkarri oinak garbitu behar deustazue. Jarraibidea emon deustuet, zuek ere Nik zuekaz lez jokatu dagizuen.

Jaunak esana

✠ LECTURA DEL SANTO EVANGELIO SEGÚN SAN JUAN 13,1-15

ANTES de la fiesta de la Pascua, sabiendo Jesús que había llegado su hora de pasar de este mundo al Padre, habiendo amado a los suyos que estaban en el mundo, los amó hasta el extremo.

Estaban cenando; ya el diablo había suscitado en el corazón de Judas, hijo de Simón Iscariote, la intención de entregarlo; y Jesús, sabiendo que el Padre había puesto todo en sus manos, que venía de Dios y a Dios volvía, se levanta de la cena, se quita el manto y, tomando una toalla, se la ciñe; luego echa agua en la jofaina y se pone a lavarles los pies a los discípulos, secándoselos con la toalla que se había ceñido.

Llegó a Simón Pedro, y este le dice:

- Señor, ¿lavarme los pies tú a mí?

Jesús le replicó:

- Lo que yo hago, tú no lo entiendes ahora, pero lo comprenderás más tarde.

Pedro le dice:

- No me lavarás los pies jamás.

Jesús le contestó:

- Si no te lavo, no tienes parte conmigo.

Simón Pedro le dice:

- Señor, no solo los pies, sino también las manos y la cabeza.

Jesús le dice:

- Uno que se ha bañado no necesita lavarse más que los pies, porque todo él está limpio. También vosotros estáis limpios, aunque no todos.

Porque sabía quién lo iba a entregar, por eso dijo: «No todos estáis limpios». Cuando acabó de lavarles los pies, tomó el manto, se lo puso otra vez y les dijo: - ¿Comprendéis lo que he hecho con vosotros? Vosotros me llamáis “el Maestro” y “el Señor”, y decís bien, porque lo soy. Pues si yo, el Maestro y el Señor, os he lavado los pies, también vosotros debéis lavaros los pies unos a otros: os he dado ejemplo para que lo que yo he hecho con vosotros, vosotros también lo hagáis.

Palabra del Señor